

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Etxekoak ez diren hondakin-urak estolderia-sarera isurtzeagatik ordaindu beharreko tasaren 2024ko errolda jendaurrean jartzea

Zergen eta Zuzenbide Publikoko Bestelako Diru-Sarrera Lokalen Kudeaketa, Bilketa eta Ikuskaritzari buruzko Ordenantza Orokorraren 26.2 artikulua betetze aldera, hamabost egunez egongo da jendaurrean jarrita etxeetako ur zikinak estolderia-sarera isurtzeari dago-kion tasaren 2024ko errolda fiskala, San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behea—, aztertu eta egokitzat jotzen diren alegazioak egiterik izan dadin.

Erroldan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du iragarki honek, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 98.3 artikuluaekin ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo den erroldan ageri diren likidazioen kontra berraztertzeke erre-kurtsoa aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, ordaintzeko borondatezko epean, eta hura bukatzen den egunaren biharamunetik hilabete igaro bitartean.

Tasa hori ordaintzeko epea 2024ko maiatzaren 30etik uztailaren 30era bitartekoa da.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko martxoaren 14an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
JON ARMENTIA FRUCTUOSO